

# Errefuxiatuei buruz irakasten

## Hizkuntza ikasteari buruzko orientabideak irakasleentzat

**Hizkuntzak ikatea prozesu luzea da. Urte asko kosta dakieke etorri berriei komunitate anfitrioiaren hizkuntza ikatea eskolan beste gai batzuk erraz ikasteko moduko maila lortu arte.**

**Gidaliburu honek laburbiltzen ditu irakasleek, herrialde berriko hizkuntza ikasten ari diren haur desplazatuekin lan egitean, aintzat hartu beharreko zenbait egoera.**

Nazio Batuen Errefuxiatuentzako Erakundeak (ACNUR) gatazka- eta jazarpen-egoeren ondorioz beren bizilekuetatik ihes egitera behartutako pertsonak babesten ditu. Bizitzak salbatu, eta eskubideak babesten ditugu, eta etorkizun hobekia eraikitzen laguntzen dugu.

© 2021 ACNUR - Material didaktiko gehiago, helbide honetan: [unhcr.org/teaching-about-refugees](https://www.unhcr.org/teaching-about-refugees)

# HASI AURRETIK

Ikasgeletan ikasle eleaniztunak dituzten irakasleek zailtasunak izan ditzakete ikasle horien premia linguistiko eta akademikoei erantzute. Gidaliburu honek ikasle eleaniztunei laguntzeko jardunbide egokien ikuspegi orokorra ematen die irakasleei.

6-11 urte

## HAURREN HIZKUNTZA-GAITASUNA

### Zer espero dezakegu?

Ikasleek azkar bereganatzen dute hizkuntza **soziala** ikaskideekin murgilduz. Haur batzuek 6 hilabetera erakutsiko dute jada **gai direla jada hizkuntza sozialki baliaitzeko**, baina normaltzat jotzen da 3-6 hilabetez ez hitz egitea (British Council). Denbora batez, hurrek hobeto ulertuko dute hizkuntza berria hitz egin baino.

Gainera, haur askok beste hurrekin jolastuz eta haiekiko harremanaren bidez (adibidez jolastokian jolastuz, bazkalorduan solastatuz) trebetasun soziala azkar lortzen duten arren, askoz denbora gehiago behar izaten dute gaitasun akademikoa lortzeko. Hurrek **hizkuntza akademikoa ikas dezaten, esplizituki irakatsi behar zaizkie ikasgelan erabiltzen den hiztegia eta gramatika** . (Cummins 1999)

Hizkuntza ikasten ari direnek **40 aldiz edo gehiagotan entzun behar izaten dute hitz berri bat hura erabiltzeko moduan ikasteko** eta gramatikalki zuzen erabili eta kokatzeko gai izateko. Ez harritu, beraz, ikasleren bat harritu egiten bada ikasgai batzuetan nabarmendu den hitz baten aurrean.

Ikasle batek ikasgelako ingurunean zer gertatzen ari den ulertzeko oinarritzko hiztegia lortzen duenean, bere garuna hizkuntzaren egiturari lehentasuna ematen hasiko da, eta, beraz, hizkuntza ikasten ari den garun batentzat garrantzitsuagoa da hitz baten kategoria (izena, aditza, partikula...) hitz "zuzena" aukeratzea baino. **Egitura ez da ikusten, eta garuneko askoz energia gehiago behar da egitura ikasteko egitura horretan sartzen diren zatiak ikasteko baino.**

**Baliteke iruditzea egun batean ikasleak ondo moldatzen ari direla, ikasten ari direla, eta hurrengoan, berriz, atzera egiten dutela sumatzea. Normala da.** Ikasle batek ikasita zeukala uste zenuen zerbait nahasten baldin badu, izan daiteke garunak beste zerbait behar duelako ezagutza berriak finkatzeko edo berria den zerbait ulertzen saiatzen ari delako.

Irakurketa-idazketarako gaitasuna (adibidez, soinuak letrekin nola erlazionatzen diren ulertzea) haurraren jatorritzko hizkuntzatik hizkuntza berrira transferituko da (Durgunoglu 2002). **Jatorritzko hizkuntzan irakurtzeko eta idazteko ohitura duten hurrek errazago transferitzen dituzte gaitasun horiek hizkuntza berrira.**

## HAURREN HIZKUNTZA-GAITASUNA

### Nola erantzun ikasleen premiei

**Animatu gurasoak seme-alabekin ahalik eta gehien hitz egitera eta irakurtzera beren jatorrizko hizkuntzan.** Begiratu ea eskolako liburutegian badagoen haien jatorrizko hizkuntzako libururik, eta eduki itzazu ikasgelan, edo eskaini liburuok gurasoei. Ez badago halakorik, galdetu liburuzainari ea eros dezakeen baten bat, edo joan beste liburutegi batera baten bat aurkitzeko. Ikasi **ikasleen izenak** familiek bezala ahoskatzen. Horrek sentiaraziko dio ikasleari bere hizkuntza eta kultura balioesten direla.

“Ulertzen duzu?” galdetu beharrea, **egin galdera zehatzak kontzeptuak ulertu dituzten ikusteko**, horrekin ikasleek erakuts baitezakete ea ulertu dituzten jarraibideak edo hiztegiko hitzak (British Council).

“Zer egiten duzu lehenago: irakurri ala galderei erantzun?”

“Seinalatuko duzu jantzi gorri bat duen norbait?”

“Aipa ditzakezu hibernatzen duten hiru animalia?”

Zuzendu erantzunak, ikusten baduzu ikasleak badakiela forma erabiltzen baina akats bat egin duela, **ikasleak aukera izan dezan bere burua zuzentzeko**, helburua bete duela senti dezan eta zuzen erabiltzeko bide neurologikoak eraiki ditzan. Ezin badute beren burua zuzendu, erreparasatzeko ikasgai bat eta praktika kontzentratuak lagungarri izango zaizkie ziurrenik.

**Eman aukera ikasleei dakartzaten hizkuntza- eta kultura-ezagutzak ikasgelan erakusteko.** Adibidez: Ikasleak eroso egongo direla egiaztatu ondoren, eman aukera ikasle bakoitzari bere hizkuntzan zerbait esaten edo kantatzen irakasteko, hizkuntza desberdinen testua inprimatu eta elkarrekin ikasi letra batzuk ikasgelan.

Erabili irudi bat hitz berri bakoitzarekin, ikasleen errazago gogoratu dezaten.

Eman esaldi-egiturak ahozko eta idatzizko gramatika-ereduetarako, eta eman aukera hizkuntza-gaitasunaren hurrengo maila eskuratzeko. Adibidez:

Istoria \_\_\_\_\_ -

\_\_\_\_\_ i buruzkoa da. Lehenik, \_\_\_\_\_ .

Gero, \_\_\_\_\_ .

Azkenik, \_\_\_\_\_

.

## HIZKUNTZA GAITASUNA NERABEETAN

### Zer espero dezakegu?

#### Hizkuntza-gaitasun oinarritzkoa

Ikasleak lotsati ager daitezke, ez baitute hizkuntza-akatsik egin nahi ikaskideen aurrean. Ikasgelan giro dibertigarri eta lasaia izateak antsietate-maila gutxitzen laguntzen du.

**Gaitasun hartzaile eta prozesatzaileek** (entzumena eta irakurmena) **gaitasun produktiboek** baino (mintzamina eta idazmena) azkarrago egiten dute aurrera ia beti.

Hizkuntza ikasten ari direnek **40 aldiz edo gehiagotan entzun behar izaten dute hitz berri bat hura erabiltzeko moduan ikasteko** eta gramatikalki zuzen erabili eta kokatzeko gai izateko.. Ez harritu, beraz, ikasleren bat harritu egiten bada ikasgai batzuetan nabarmendu den hitz baten aurrean.

Ikasle batek ikasgelako ingurunean zer gertatzen ari den ulertzeko oinarritzko hiztegia lortzen duenean, bere garuna hizkuntzaren egiturari lehentasuna ematen hasiko da, eta, beraz, hizkuntza ikasten ari den garun batentzat garrantzitsuagoa da hitz baten kategoria (izena, aditza, partikula...) hitz "zuzena" aukeratzea baino. **Egitura ez da ikusten, eta garuneko askoz energia gehiago behar da egitura ikasteko egitura horretan sartzen diren zatiak ikasteko baino.**

**Baliteke iruditzea egun batean ikasleak ondo moldatzen ari direla, ikasten ari direla, eta hurrengoan, berriz, atzera egiten dutela sumatzea. Normala da.** Ikasle batek ikasita zeukala uste zenuen zerbait nahasten baldin badu, izan daiteke garunak beste zerbait behar duelako ezagutza berriak finkatzeko edo berria den zerbait ulertzen saiatzen ari delako

#### Hizkuntza-gaitasun ertaina

Ikasleak gai dira eduki akademikoak (matematika, zientzia...) eta hizkuntza berri bat aldi berean ikasteko.

**Baliteke iruditzea egun batean ikasleak ondo moldatzen ari direla, ikasten ari direla, eta hurrengoan, berriz, atzera egiten dutela sumatzea. Normala da.** Ikasle batek ikasita zeukala uste zenuen zerbait nahasten baldin badu, izan daiteke garunak beste zerbait behar duelako ezagutza berriak finkatzeko edo berria den zerbait ulertzen saiatzen ari delako.

Gaitasun akademikoa lortzeko, 5 urte edo gehiago behar izaten dira. **Hala ere, zenbait ikaslek ikasketetan aurrera egiteko gai izango dira, nahiz ez lortu hizkuntza-maila hori.**

## Nola erantzun ikasleen premiei

### Hizkuntza-gaitasun oinarritzkoa

**Saiatu ikasleei lau hizkuntza-eremuak erabiltzeko aukera ematen dieten ikasgaiak diseinatzen, hizkuntza berria ikastera animatzeko. Hona hemen adibide batzuk:**

**Entzumena:** Eskatu ikasleei taldean lan egiteko, hizkuntza ikasten ari direnak hitzun natiboekin erlazioa daitezen. Esleitu rol egokiak taldekideei: baliabideez arduratzen den pertsona (hiztegian edo Interneten informazioa bilatzeko), denbora kontrolatzen duena, hiztegiko hitz jakin batzuei adi egongo dena...

**Irakurmena:** Berrirakurri testu ezagunak; irakurketa-kidea izendatu; irakatsi fonetika eta hiztegia talde txikitan, beste ikasle batzuk bakarka irakurtzen ari diren bitartean...

**Idazmena:** Eman esaldi-egiturak ikasleei arbelean dagoen irudi bati buruz idazten laguntzeko.

**Mintzamena:** Eskatu ikasleei gai jakin bati buruz hitz egiteko ondoko ikaskidearekin. Ikaskide batekin praktikatu ondoren, denek batera partekatuko dituzte taldean.

Sartu **hiztegiko 3-5 hitz berri** egunean, zein bere irudiarekin. Jarri hitzak eta haien irudiak gelako "hitzen horma" batean, ikasleek bistan izan ditzaten beti. Irudiek oroimena aktibatzen dute, eta ikasleek errazago erabiliko dituzte hitz berriak hormetan jarrita ikusten badituzte.

Eskatu ikasleei jarraibideak errepikatzeko, ondo ulertu dituzten egiaztatzeko. Egin **ulertu dutela egiaztatzeko galderak**, "ulertu duzu?" galdetu beharrean. (British Council)

### Hizkuntza-gaitasun ertaina

**Saiatu ikasleei lau hizkuntza-eremuak erabiltzeko aukera ematen dieten ikasgaiak diseinatzen, hizkuntza berria ikastera animatzeko.. Hona hemen adibide batzuk:**

**Entzumena:** Entzun grabazio bat (abesti bat, irratiko albisteak...), eta egin hutsuneak betetzeko ariketa bat hitz berri nagusiak lantzeko.

**Irakurmena:** Erantsi beti hitz-zerrenda bat eta haien definizioa irakurgaiei.

**Idazmena:** Idatzi testu labur bat ikasleek ikasgai batean ikasitakoa jasotzen duena.

**Mintzamena:** Eskatu ikasleei taldean lan egiteko, hizkuntza ikasten ari direnak hitzun natiboekin erlazioa daitezen. Eman taldekideei erronka handiagoko rola; esate baterako, idazlea, kazetaria edo laborpen-lana egingo duena.

Jarraitu **3-5 hitz berri** sartzen egunero, zein bere irudiarekin.

Eman **esaldi-egiturak** pentsamendu kritikoa suspertzen duten idazmena eta irakurmena lantzeko.

Adibidez:

Istorioa \_\_\_\_\_  
 \_\_\_\_\_-i buruzkoa da. Ez nago  
 ados \_\_\_\_\_ zeren eta \_\_\_\_\_

Froga gisa esan daiteke

Egokitu **eduki akademiko ikasleen adinerako**

12-18 urteko hiza hitz-kuntzari dagokionez aukera berak emateko ikasle guztiei.

Adibidez, laburtu zereginak eta gehitu ikasleek lana osatzeko behar dituzten hitz-zerrendak.

---

### Adibideak:

- “Zer egiten duzu lehenago: irakurri ala galderei erantzun?”
- “Seinalatuko duzu Asiako herrialderen bat mapan?”
- “Esango duzu nolako eguraldi ikusiko zenukeen tifo bat balego?”

Ahal den guztietan, eman ikasleei aukera beren hizkuntza aurkezteko, zenbait gaitarako beren ikuspegiak emateko, beren kulturaren ikuspegi emateko...

Ahal den guztietan, utzi ikasleei **teknologia** erabiltzen beren pentsamendua antolatzeko eta adierazteko (ikus baldin bideak behean).

Gurasoekiko komunikazioa (bat-bateko itzulpena): <https://talkingpts.org>

Hiztegia praktikatzeko jokoak:

<https://duolingo.com>

Hiztegi-txartelak:

<https://studyblue.com>

Antolatzaile grafikoa:

<http://popplet.com>

## Erreferentziak

British Council: Checking Understanding. (n.d.).

<https://www.teachingenglish.org.uk/article/checking-understanding>

British Council: Silent Period (n.d.)

<https://www.teachingenglish.org.uk/article/silent-period>

Cummins, J. (1999). BICS and CALP: Empirical and Theoretical Status of the Distinction. Literacies and Language Education

<http://files.eric.ed.gov/fulltext/ED438551.pdf>

Durgunoglu, A. Y. (2002). Cross-linguistic transfer in literacy development and implications for language learners. *Annals of Dyslexia*, 52, 189-204.